

# Arrasateko Udal Dokumentazioa Berant Erdi Aroan (1260-1520):

---


Edizioen azterketa eta balorazioa

**Beñat Aguirrebengoa Lizarralde, Historia, 4. Maila, Letren  
Fakultatea, EHU**

06/06/2017

Tutorea: **José Ángel Lema Pueyo, Erdi Aro, Aro  
Berri eta Amerikako Historia Saila**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LABURPENA: Lan honen bidez, Berant Erdi Aroko Arrasateko udal dokumentazioren edizioen inguruan hitz egingo da, 1520 arte. Lehenengo eta behin, Eusko Ikaskuntzaren, *Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* bilduma aztertuko da, Gipuzkoa eta Arrasateren kasuetan zentratuz. Horrez gain, dokumentazioaren inguruan eginiko beste lan batzuk ere aipatuko dira, Gonzalo Martínez Díez-ek zuzendutako *Documentos medievales de las villas guipuzcoana* lanari garrantzia emanaz. Jarraian, lanaren muinean sartuko da; Arrasaten inguruan hitz egiten duten argitaratutako dokumentuen sailkapen eta datuen sistematizazioa egiten saiatuz. Horretarako, lehendabizi agiriak kronologikoki banatuko dira, mendeak 25 urteko tartetan banatuz eta honen komentario bat egingo da. Ondoren, agiriak egilearen arabera banatu eta komentatuko dira, gehien bat Probintzia eta Udal agiriak azpimarratuz. Bukatze aldera, dokumentu hauek islatzen dituzten gai historikoak azalduko dira, beti ere, Arrasate, Gipuzkoa eta garaiko Testuinguruan kokatzen ahaleginduz. Amaitzeko, lan amaitzean, aurrez adierazitako guztia kontuan hartuta atera diren ondorioak argitzen saiatuko da, ikerketak aurrera eramateko zer egin daitekeen argitzen ahaleginduz.

HITZ-GAKOAK: dokumentazioa, Eusko Ikaskuntza, artxiboa, agiri juridikoak.

## AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	3
2.- ARGITALPEN EKIMENAK.....	4
2.1.- Eusko Ikaskuntzaren <i>Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco</i> .....	4
2.1.1.    Gipuzkoa .....	5
2.1.2.    Arrasate .....	7
2.2.- Beste ekimen batzuk .....	9
3.- DATUEN SISTEMATIZAZIOA .....	11
3.1.- Agiri kopuru orokorra eta beren banaketa kronologikoa.....	11
3.2.- Agiri motak egilearen arabera.....	14
3.2.1.    Aspektu orokorrak .....	14
3.2.2.    Probintzia Agiriak.....	17
3.2.3.    Udal Agiriak .....	17
3.3.- Islatzen diren gai historikoak:.....	20
4.- ONDORIOAK.....	24
5. BIBLIOGRAFIA .....	26
5.1.- Azterlanak.....	26
5.2.- Lehen iturrien argitalpenak .....	26

## 1.- SARRERA

Lan honen bidez, Arrasateko Berant Erdi Aroko udal dokumentazioaren edizioen azterketa eta balorazioa egiten saiatuko naiz. Etorkizuneko ikerketa batean pentsaturik, Arrasateko tokiko historia, inguruko lurretako eta Probintziako historia ikertzen jarraitzeko, lehen iturri idatzien balorazio bat ematen saiatuko naiz hurrengo orrialdeetan. Kontuan hartu behar da, gaur egun arte egin diren lanak garrantzitsuak eta interesgarriak izan direla, gehien bat Eusko Ikaskuntzak bere bilduman Arrasateri buruz eginiko lanak eta Gonzalo Martínez Díez-ek Gipuzkoako hiribilduei plazaratutako lana. Hala ere, muga batzuk izan dituzte hauek, esaterako, argitaratutako dokumentuetan soilik agiri juridikoak hartzen direla kontuan –bilduma diplomatikoetan ohikoa den bezala-; beste mota batzuk kontuan hartu gabe. Honez gain, Eusko Ikaskuntzaren argitalpenen nagusitasuna kontuan harturik, muga kronologiko moderno bat errespetatu da lan honetan 1520koa, Eusko Ikaskuntzak inposatutakoa, eta beraz, urte horren ondoko dokumentuekin ez da lanik egin.

Nolanahi ere, Eusko Ikaskuntzak, Arrasateri buruz 6 tomo desberdin argitaratu ditu 1520 arteko dokumentazioa plazaratuz. Gonzalo Martínez Díez-ek berriz Gipuzkoari buruzko bi tomo plazaratu ditu 1397 urte arte eta hemen ere, Arrasateri buruzko agiriak agertzen dira. Dena dela, hau aurrerago azalduko dut sakontasun gehiagorekin. Honetaz aparte, agirien kopuru zehatza, edizio lanen kalitate ezberdina, hauen kronologia, egilearen araberrako sailkapena eta islatzen diren gai historiko nagusiak ere azalduko ditut; azken bi zati hauei garrantzia emanez. Azkenik, hau guztia azaltzean, lana egin ostean atera ditudan ondorioak argitzen ahaleginduko naiz.

Honetakarako, argitalpenen bilaketa bat eginez hasiko naiz, Eusko Ikaskuntzaren 6 tomoei eta Gonzalo Martínez Díez-en lanei garrantzia emanez. Behin hauek bilatuta, kronologikoki eta egilearen arabera sailkatu eta sistematikoki aztertzen arituko naiz. Azkenik, dokumentazioak erakusten duten gai historikoak, garaiko testuinguruan kokatzen ahaleginduko naiz, beti ere Arrasateko eta Gipuzkoako historia ulertzeko helburuarekin.

## 2.- ARGITALPEN EKIMENAK

### 2.1.- Eusko Ikaskuntzaren *Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco*

Euskal Herriko dokumentuen eta edizioen argitalpenak aztertzen hasteko ezinbestekoa da Eusko Ikaskuntza instituzioari buruz hitz egitea. 1982an hasita, *Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* bilduma osatu dute, helburu nagusia, Euskal Herriko (gaur egungo EAE, Nafarroa eta Iparraldea) historia ezagutzeko beharrezko iturrien edizio bat argitaratzea izanik. Proiektu hau aurrera eramateko, Jose Luis Orella izendatu zen zuzendari, eta edizio lanetan espezialistak ziren zenbait historialariren laguntza izan zuen. 1994an, Orella-ren lekua Aingeru Zabalak hartu zuen eta zuzendari lana hamabi urtez bete zuen. Orduetik aurrera, Maria Rosa Ayerbe historiadorea ibili da zuzendari lanetan, gaur egun arte<sup>1</sup>. Laguntza intelektualez gain, laguntza ekonomikoak ere jaso dituzte herri eta probintzietako gobernuen partetik. Gaur egun, bilduma 151 alez osatua dago, baina aurrera begira gehiago izatea espero da.

Lan garrantzitsua egin den arren, zenbait arazo izan dira, esaterako, bildumaren kronologian. EAE-n lehen dokumentuak 1200 ingurukoak dira gehienetan, Nafarroan aldiz, lehenagoko dokumentazioa aurki dezakegu. Bildumaren bukaera non jarri erabakitzean eman ziren arazo gehiago. Lehenengo urteetan, XVI. mendearen hasieran jarri zen, baina 1994tik aurrera muga kronologikoa 1520. urtera aldatzea erabaki zen.

Bestalde, eginiko edizio lanetan irizpide desberdinak erabili dituzte egileek, gehien erabilitakoa artxibistikoa izanik. Adituen ustetan, irizpide hau ez da egokiena, udal artxibategietan lan egiteko egokia den arren, artxibategi handietarako desegokia da<sup>2</sup>. Lantzen ari garen kasuan gehienak udal artxibategiak izan dira, baina aipatu beharrekoak dira probintzia edo estatu mailako zenbait artxibategi, Gipuzkoako Artxibo Orokorra edo Valladolideko Errege Entzundegiaren Artxiboa, besteak beste. Dena dela, beste zenbait

---

<sup>1</sup> LEMA, José Ángel, “Fuentes documentales impresas para el estudio de las redes de poder en la Baja Edad Media: el caso vasco como ejemplo de aplicación”, in CARVAJAL, David; VÍTORES, Imanol; AÑIBARRO, Javier (ed.), *Poder, Fisco y Mercado en las ciudades de la Península Ibérica (Siglos XIV-XVI)*, Valladolid, Castilla Ediciones, 2016, 26-27 orr.

<sup>2</sup> LEMA, José Ángel eta MUNITA, José Antonio, “Nuevos documentos y nuevo tratamiento de las fuentes para el estudio de la Lucha de Bandos”, in DÍAZ DE DURANA, José Ramón (ed.), *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal: Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, Bilbo, EHU, 1998, 50-51 orr.

irizpide ere erabili dira: kodikologikoa, instituzionala (gehienetan eliza edo monasterio bati lotua), pertsonala (erregeekin lotua) eta tematikoa (behin bakarrik erabilia).

Lehen aipatu bezala, Euskal Herri osoko dokumentazioa editatzea izan da lan honen helburu nagusia. Hala ere, ale gehienak EAE-koak izan dira, 114 alegia, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrikoak gutxiengoa izanik. Probintziei erreparatuz, Bizkaia eta Gipuzkoa izan dira gehien landu direnak, lehenari buruz 48 ale argitaratu dira eta bigarrenari dagokionez berriz, bat gehiago, 49 guztira; hala ere, Gipuzkoari buruz aurrerago hitz egingo da. EAE-ren kasuan, Araba izan da gutxien landu dena, 18 alerekin, bilduma osatzen duten gainontzeko 36ak berriz, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriari buruzkoak dira.

Eusko Ikaskuntzaren bildumak gai desberdinak lantzen ditu, nagusia, dokumentu publikoena da argi eta garbi. Gehien bat errege kartak, hauen konfirmazioak, foruen inguruko dokumentuak, udal eta probintzia ordenantzak... aurkitzen dira. Horrez gain, ekonomiarekin zer ikusia duten zenbait dokumentu ere landu dira, hala eta guztiz ere, kantitate txikiagoan. Azkenik, dokumentu pribatuak ere aurkitzen dira bilduman zehar, egiletasun notarialak dituztenak, esaterako, Bergarako kasua<sup>3</sup>. Herri honetan, beste zenbaitetan bezala, Eusko Ikaskuntzak, bertako notaritza erregistroen eta leinuen fondoan edizio lanak egin ditu. Iturbe-Eulate fondo familiarrean aurkitutako dokumentu hauek 1401-1520 bitartekoak dira. Hauetan, Gipuzkoako familia bat eta Arabako beste familia baten nondik norakoak ikusi daitezke eta nola denborarekin nobleziaren parte izatera iritsiko diren.

Eusko Ikaskuntzaren bildumaren bilakaera orokorrarekin amaitzeko, ezinbestekoa da lan honen lorpen eta mugen inguruan hitz egitea. Lan garrantzitsua egin den arren, zenbait aspektu hobetzeko modukoak dira; horietatik bat homogeneitate falta da, autoreen arabera irizpideak ezberdinak izan baitira. Honetaz gain, askotan edizio lanak soilik egin dira, lan historiko, paleografiko edo diplomatikoak bigarren plano batean utzita. Azkenik, lan hauetako sarrerei buruz hitz egitea interesgarria da, askotan oso sinpleak izaten baitira, publikatutako lanen laburpen soil bat eginez<sup>4</sup>.

### 2.1.1. Gipuzkoa

Behin Eusko Ikaskuntzaren bildumaren bilakaera orokorra azalduta, Gipuzkoan zentratzea komenigarria da. Aurretik aipatu bezala, Gipuzkoa da gehien landu den

---

<sup>3</sup> LEMA, José Ángel, "Fuentes documentales impresas para el estudio..." 30. or.

<sup>4</sup> LEMA, José Ángel, Op. cit, 31. or.

lurrealdea, 49 alerekin. Nolanahi ere, oraindik lan asko egitea falta da, zenbait herritan ez baita lanik egin eta beste zenbaitetan amaitu gabe gelditu baitira.

Gipuzkoako kasuak badu berezitasun bat, probintziako hiriburuko dokumentazioa galdu egin baitzen, aski ezaguna den 1813ko Donostiako erreketaren ondorioz. Erretako dokumentuen artean, hiriak 1180an jasotako foru gutuna aurkitzen zen, Gipuzkoako historia ezagutzeko oso interesgarria den agiria. Honi aurre egiteko, hiriko San Bartolome monasterioko eta inguruko herrietako -Errenteria, Oiartzun eta Hondarribia- dokumentazioa erabili da.

Bestalde, Gipuzkoako mapan hutsune nabariak aurkitu ditzakegu udal dokumentazioari erreparatuz. Adibide garbia Orio eta Mutriku arteko udalerrak (Getaria, Zarautz eta aipatutako bi herriak) dira, 1397 arte Gonzalo Martínez Díez-ek landutako dokumentaziotik aparte ez baita ezer landu<sup>5</sup>. Urolan ere, oso lan gutxi egin dira, Azpeitia bezalako herri garrantzitsuan esaterako, ez dira lanik egin. Irun, Ordizia eta Villabonan ere udal dokumentazioaren inguruan ez dira lanik egin. Hutsune hauen arazoak ezberdinak dira kasuan arabera; batzuetan, Erdi Aroko iturrien faltagatik izan da eta beste batzuetan aldiz, denbora eta diru laguntza faltagatik. Landu gabeko herriez gain, beste zenbaitetan lanak egin arren ez dituzte amaitu, esaterako: Azkoitia, Aretxabaleta eta Errenteria.

Zenbait udalerriren dokumentazioa landu gabe dagoen arren, beste herri askotan lan paregabea egin da. Horien artean aurkitzen dira: Oiartzun, Tolosa, Segura, Legazpi, Arrasate, Bergara... Etorkezunean, falta diren herrien dokumentazioa argitaratzea da helburu nagusia eta hau amaitzean, Tolosan aurkitzen den Gipuzkoako Artxibo Orokorreko dokumentuen edizio lana egitea<sup>6</sup>.

Eskualdeen araberrako banaketa egitea oso interesgarria da, egin diren lanak ikusi eta falta direnak izendatzeko. Gehien landu den eskualdetako bat Debagoiena da, bertan Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta, Antzuola, Aretxabaleta (erdizka), Eskoriatza eta Leintz Gatzagako udal dokumentazioa argitaratua baitago, hots, eskualdeko herri guztietako dokumentazioa. Debabarrenan ere, lan ugari egin dira: Soraluze, Eibar, Elgoibar, Deba eta Mutriku landu dira; ia herri guztiak, Mendaro izan ezik.

---

<sup>5</sup> LEMA, José Ángel; MUNITA, José Antonio, "Nuevos documentos y nuevo tratamiento..." 57-58 orr.

<sup>6</sup> LEMA, José Ángel, "Fuentes documentales impresas para el estudio..." 29. or.

Donostialdearen kasua nahiko konplexua da, lehen aipatu bezala, hiriburuko dokumentazioa erre egin baitzen. Hori dela eta, inguruko herrietako udal artxiboetan lan garrantzitsuak burutu dira; hala nola: Oiartzun, Pasaia, Lezo, Hernani eta Errenterian. Hauei Donostian aurkitzen den San Bartolome elizako dokumentazioa gehitu behar zaio. Bidasoaldean ere, Hondarribiako udal dokumentazioa ere argitaratu du Eusko Ikaskuntzak, Irunekoa ordea, ez.

Bestalde, Goierri, Urola eta Tolosaldean egin diren lanak gutxiago izan dira. Lehenengo eskualdean, Legazpi, Urretxu, Zumarraga, Ataun eta Segurako agiriak landu dira. Urolan berriz, Zumaia, Zestoa eta Azkoitiako (erdizka) dokumentazioa argitaratu da. Azkenik, Tolosaldean, Eusko Ikaskuntzak Tolosako udal agiriak soilik plazaratu ditu, bertan dago lan gehien egin beharra, hiri hau Gipuzkoako historia ezagutzeko oso garrantzitsua baita<sup>7</sup>.

### 2.1.2. Arrasate

Arrasateren kasuan, Eusko Ikaskuntzak lan ugari egin du herriko udal dokumentazioaren edizioan, guztira 6 tomo argitaratuz. Lehenengo alea 1992an argitaratu zen, hurrengo hiruak 1996an eta azken biak 1998an. Lehenengo lau tomoetan, Arrasateko udal artxiboan aurkitu ziren dokumentu solteak, askotan laburrak (diplomatiaren terminologiaren arabera *cartas*, *chartes* edo gutunak deiturikoak) argitaratzen dira. Azken bi tomoetan berriz, bestelako dokumentazio bat argitaratzen da, eskuizkribu bat, Batzarretako aktak eta kontu liburuen ingurukoak.

Lehenengo eta behin, lehen lau aleei buruz hitz egingo dut, hau da, dokumentu edo agiri solteak edo gutunak plazaratzen dituztenei buruz. Nahiz eta lehen tomoa 1992an argitaratua izan, hurrengo hirurak, 1996an plazaratuak, honen jarraipenak dira. Aurreneko tomoa, 1260-1400 bitartean idatzi ziren 50 dokumentuek osatzen dute, eta hauen aurretik sarrera bat dago, agiri hauek ematen diguten informazioa eta gai nagusiak laburtuz. Bertan, dokumentuen gai hauek hiru ataletan banatzen dituzte lanaren egileek, Arrasateko herriri buruzkoak, Gipuzkoako Probintziari buruzkoak eta Probintziation kanpo harremanei buruzkoak<sup>8</sup>.

---

<sup>7</sup> Kasu honetan, eskualdekako banaketa egiteko, Eusko Ikaskuntzaren *Fuentes documentales medievales del País Vasco*-ko aleen zerrenda eta FORTÚN, Luis Javier; MUNITA, José Antonio; GARCÍA de CORTAZAR; José Ángel (zuz.), *Codiphis: Catálogo de colecciones diplomáticas hispano lusas de época medieval*, Fundación Marcelino Botín, 1999, liburua erabili ditut.

<sup>8</sup> CRESPO, Miguel Ángel; CRUZ, José Ramón; GOMÉZ, José Manuel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón I. (1260-1400)*, Donosti, Eusko Ikaskuntza, 1992. Liburu honen lehen zatia erabili da; hau da lehen orrietako sarrera, 2-6 orr.



Arrasateren historia ulertzeko beharrezkoak diren arlo ezberdinei buruz hitz egiten dute dokumentu gehienak, hala nola, herriko burdinola, nekazaritza, abeltzaintza, merkataritza harremanak eta bideak, bando eta familiak, suteak... Gipuzkoako probintziari buruzko materia ere ikus dezakegu agiritan, esaterako, aurretik ezagutzen ez ziren karguak (*prestamero de Gipuzkoa*), baita probintziaren mugen zehaztatzea ere. Bestalde, Gipuzkoako Probintziatik kanpo harremanak ezagutzen ere laguntzen digute dokumentu batzuek, hots, gortearekin izandako harremanei buruzko informazioa<sup>9</sup>.

Hurrengo hiru tomoak, dokumentu hauen jarraipenak dira, hala eta guztiz ere, hauetan ez dugu sarrera edo aurkibiderik aurkitzen, soilik dokumentuak. Bigarren tomoak, 1400-1450 urteen artean egin ziren agiriak argitaratzen ditu, 51-125 agiriak, hau da, guztira 75 dokumentuk osatzen dute alea. Hirugarren tomoak berriz, 1451-1470 arteko kronologia hartzen du eta 90 agiriz osatua dago. Azkenik, laugarren alea, 1471-1500 urte arteko dokumentuez osatua dago, guztira 68 dokumenturekin. Honetaz gain, liburu hau indize antroponimikoak eta indizea egiteko erabili ziren arauen argibideak osatzen dute.

Lehen lau zatiez gain, 1998an Eusko Ikaskuntzak beste bi ale argitaratu zituen, hau da, V. tomoa, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo V. Libro 2. Copia de Privilegios Antiguos (1217-1520)* izenburua duena, eta VI.a, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo VI. Libro de cuentas del concejo. 1501-1520. Copias de Acuerdos de las Juntas Generales de Gipuzkoa. 1510-1520.*

V. alea ez da aurreko tomoen antzekoa, lan honetan, 1501-1520 bitarteko dokumentazioaz gain, 1217tik 1520 bitarteko memoria juridikoa gordetzen duen kopia bat ere aurkitzen dugu. Kopia hau, *Libro 2* edo *Copia de Privilegios Antiguos* deitzen da, eta 1217tik aurrera Arrasateko hiribilduak jaso zituen pribilegio eta abantailak azaltzen dituzten dokumentuez osatua dago. Agiri hauek oso garrantzitsuak ziren, bertakoen eguneroko arazoak, hiriko administrazioa eta arazo judizialak konpontzeko. Kopia edo liburu hau, XVI. mendeko lehen zatian idatzita egon daiteke. Eskribauak erabiltzen duen letra motari erreparatuz, kasu honetan letra kortesaua (*cortesana*) da. Kopia eta liburu bat dela kontuan izanik, aipagarria da, kopia honetan aurkitzen diren dokumentu originalak oraindik ere mantentze direla. Kasu honetan, Eusko Ikaskuntzak lehen lau tomoetan argitaratuta zituen dokumentuak kopiaketa liburuan aurkitzen zirenak ez dira tomo honetan plazaratu. Lanaren hasieran sarrera nahiko motz bat dago, transkripzioa nola egin

---

<sup>9</sup> CRESPO, Miguel Ángel, et alii: Op. cit., 2-6 orr.

zen, eman ziren arazoak, lantzen diren gaiak etab. azaltzen duena. Aleak guztira 219 dokumentu batzen ditu, baita hauei dagozkien aurkibide antroponimikoa eta aurkibidea egiteko erabili ziren arauen argibideak<sup>10</sup>, laugarren alean ikusi dezakegun bezala.

Azken alea ere, VI.a, bestelakoa da. Kasu honetan, Gipuzkoako Batzar Orokorretako aktek eta kontzejuko kontu liburuen transkribaketa eta argitalpenak osatzen dute. Horrez gain, aurkibide txiki bat eta aurrekoak bezala, sarrera bat, dokumentuei dagozkien indize antroponimikoa eta indizea egiteko erabili ziren arauen argibideak ere badaude liburuan. Kontu liburuari dagokionean, 1500-1520 bitarteko datuak daude argitaratuta, udal kontu hauek urtero egiten ziren. Dena dela, 1508 eta 1509ko datuak desagertuta daude, eta 1507koak ez daude osorik. Gipuzkoako Batzar orokorretako aktak berriz, 1510-1520 bitartekoak daude, lehenengoa 1510 urtean idatzia izanik. Akta hauetan, probintziaren gastuak kalkulatu ziren eta ondoren kontzejuen artean banatu, bakoitzak zuen su (*fuego*) kopuruen arabera<sup>11</sup>.

## 2.2.- Beste ekimen batzuk

Eusko Ikaskuntzaren lan handia alde batera utziz, beste zenbait egile gogoratzea oso garrantzitsua da, horietatik aipagarria, Gonzalo Martínez Díez da. Historiagile honen lan esanguratsua bi liburukik osatutako *Documentos Medievales de las villas Gipuzcoanas* da, Gipuzkoako udal dokumentazioaren edizio lana hain zuzen. Lan hau burutzen Félix J. Martínez Llorente eta Emiliano González Díez izeneko beste bi historiagilek lagundu zioten. 1991-1996 artean egin zuten, eta 1200-1397 bitartean idatzi ziren 569 dokumentu argitaratu zituzten. Udal, eliza, probintzia eta estatuko artxibategiak eta “Biblioteca de la Real Academia de la Historia”, arakatu eta bilaketa sistematikoak egin zituzten. Hasierako helburua 1405 arteko dokumentuak aztertzea zen, Gaztelako Enrike III.a hil artekoak, baina azkenik, 1397 arte egitea erabaki zen, urte hau Gipuzkoaren sorrerarako data oso garrantzitsua baita<sup>12</sup>. Dena dela, autoreen hitzetan, dokumentuetan agertzen diren pertsona eta tokien inguruko aurkibide batez osatutako hirugarren tomo baten beharra dago.

---

<sup>10</sup> HERRERO, Victoriano José; ACHÓN, José Ángel; MORA, Juan Carlos, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo V. Libro 2. Copia de Privilegios Antiguos (1217-1520)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1998, I-V orr.

<sup>11</sup> LEMA, José Ángel; GOMÉZ, José Manuel, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo VI. Libro de cuentas del concejo. 1501-1520. Copias de Acuerdos de las Juntas Generales de Gipuzkoa. 1510-1520*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1998. I-II orr.

<sup>12</sup> LEMA, José Ángel; MUNITA, José Antonio, “Nuevos documentos y nuevo tratamiento...” 52. or.

Bestalde, XIII. mendearen lehen zatiko agiriak nahiko urriak dira, hala eta guztiz ere, mende honen bigarren erdialderako pixkanaka ugaritu egiten da dokumentuen kopurua. XIV. mendean ordea, izugarrizko gorakada emango da agirien kopuruari dagokionez, tarte honetan 469 dokumentu idatziko baitziren. Aipagarria da, 469 dokumentuetatik erdiak baino gehiago 1370eko hamarkada ondorengoak direla. XIV. mendeko igoera honen arrazoiak anitzak dira, esaterako: Gaztelako kortearen handitzea, hiribilduetako instituzioen sorrerak eta Gipuzkoako ekonomiaren garapenak, gehienbat merkataritza eta burdinolen garrantziaren ondorioz. Dokumentu hauen gaiak anitzak eta oso interesgarriak dira Gipuzkoako historia ezagutzeko. Hauen bidez, hiribilduen sorrerak, auzo eta herrixken bateratzea, baso eta larreen ustiapenek sortutako arazoak, foruen konfirmazioak, Ermandadeen sorrerak... ezagutu eta aztertu ditzakegu.

Bere lanari erreparatuz, lehen orrietan sarrera txiki bat egiten du, lanaren nondik norakoak argituz eta jarraian transkripzio arauak azaltzen ditu. Aurretik aipatutako Eusko Ikaskuntzaren bildumak, lanaren garrantzia gutxitu duen arren, esan beharra dago oso lan interesgarria dela. Horrez gain, homogeneotasun handia du eta transkripzio arauak eta irizpideak ezin hobeto errespetatzen ditu<sup>13</sup>.

Gonzalo Martínez Díez-en lanaz gain, badaude beste zenbait lan Gipuzkoako dokumentazioaren inguruan. Aipagarria da 1486-1506 artean Gipuzkoako Batzar Nagusiek idatzi zuten *Libro de los Bollones* deituriko kodizea, gaur egun Gipuzkoako Artxibo Orokorrean -Tolosan- gordetzen dena. Bertan, garaiko Probintziaren ordenantzak kopia ziren, baita Batzar Nagusietako botazioen dokumentuak, eserlekuei buruzko agiriak... 1995an Carmen Álvarez-ek zuzenduta, kodize honen transkripzioa burutu zen eta lan honez gain, Probintziako eskribautza, kodizearen egileen eta garaiko Gipuzkoako instituzioen inguruko lanketa egin zuen. Horrez gain, 1920-1930 urteen artean, Gipuzkoako Diputazioak XVI. mendeko lehen hamarkadetako Batzar Nagusien erregistroak argitaratu zituen. Hamarkada batzuk beranduago, María Rosa Ayerbek, XVI. Mendeko bigarren erdialdeko Batzar Nagusien erregistroak argitaratu zituen<sup>14</sup>. Lan honetaz gain, Probintziako zenbait herriren udal dokumentazioaren edizioan ere lan egin du, adibidez: Andoain, Legazpi, Azkoitia edo Oñati (Gebaratarren artxiboan lan egiteko aukera izan zuen).

---

<sup>13</sup> LEMA, José Ángel, "Fuentes documentales impresas para el estudio..." 32. or.

<sup>14</sup> LEMA, José Ángel; MUNITA, José Antonio, "Nuevos documentos y nuevo tratamiento..." 53-54 orr.

Oñatiren kasuan, Maria Rosa Ayerbek, Geberatarren artxiboko dokumentazioaren zati bat argitaratzea lortu zuen, bere doktoretza tesia egiten ari zenean. Honelako artxibategi pribatuetan, informazio ugari eta garrantzitsua aurkitzen da, bandoen gerra eta Gipuzkoako leinuei buruz. Kasu antzekoa da Loiolatarren leinukoa, Ignazio Loiolakoaren fama aprobetxatuz, Cándido de Dalmases-ek, leinu honen dokumentazioaren bilduma bat plazaratu zuen, *Fontes Documentales de Sancto Ignatio de Loyola*<sup>15</sup>.

Bestalde EHUK –Erdi Aro, Aro Berri eta Amerikaren Historia Saitetik- eginiko lan ezberdinak ere aipagarriak dira Gipuzkoako historia eta bertan landu diren dokumentuak ezagutzeko. Lan horietako bat, *Los Señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)* da. Liburu honetan, Gipuzkoako historia ezagutzeko oso interesgarriak diren eta aurretik argitaratu gabeko 270 dokumentu kaleratu ziren. Dokumentu hauek hainbat artxibategitan aurkitu ziren, hala nola: Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, Madrileko Artxibo Historiko Nazionalean, Nafarroako Artxibo Orokorrean, zenbait udal artxibategitan... Edizio lan hau burutzeko bi irizpide nagusi erabili ziren, tematikoa eta geografikoa<sup>16</sup>.

EHUn –aipatutako sailean ere- eginiko beste lan aipagarri bat *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)* da. Lan honetan ere, aurretik ezagutzen ez ziren 50 dokumentu argitaratu ziren, kategoria ezberdinetakoak (aktak, kontularitzaren ingurukoak, testu betearazleak...). Aurreko lanaren bezala, irizpide tematikoa -egileen ikerketa lanari lotua- erabili zen eta agiri gehienak Gipuzkoako Artxibategi Orokorrean eta Gipuzkoako hainbat udal artxiboetan aurkitu ziren<sup>17</sup>.

### 3.- DATUEN SISTEMATIZAZIOA

#### 3.1.- Agiri kopuru orokorra eta beren banaketa kronologikoa

Arrasaten eginiko lanean gehiago sakontzeko, datuen sistematizazioa azalduko dut, eta horretarako, lehenengo eta behin, agiri kopuru orokorra eta hauen kronologia landuko dut. Kasu honetan, aurretik aipatu bezala, 6 alek osatutako lan garrantzitsua egin du Eusko

---

<sup>15</sup> LEMA, José Ángel; MUNITA, José Antonio, Op. cit., 55. or.

<sup>16</sup> LEMA, José Ángel [et al.], *Los Señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Iturriak 2, 2000, 89-90 orr.

<sup>17</sup> LEMA, José Ángel [et al.], *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)* Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Iturriak 3, 2002, 150-151 orr.

Ikaskuntzak hiribildu honi buruz, horrez gain, Gonzalo Martínez Díez-ek zuzendutako bi tomoetan ere, Arrasateri buruzko agiriak ugariak dira. Eusko Ikaskuntzaren kasuan hiribildu honi buruzko dokumentuak 532 dira, 6 ale ezberdinetan banatuz. *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas* lanean berriz, bi tomotan banatuta, 56 agiri daude guztira Arrasateri buruzkoak. Kasu honetan, agiriak sailkatzean, zenbait duda agertu dira, esaterako, Gonzalo Martínez Díez-en liburuko 375 agiria, Arrasaten idatzia dago, baina ez du udal historiari buruz hitz egiten, Gipuzkoako Ermandadeen historia orokorrari buruz baizik, hori dela eta, ez da gure lanean sartuko<sup>18</sup>.

Banaketa kronologiari dagokionez, aipatu beharra dago, azterketa oso bat egiteko mendeak, lau zatitan banatu direla, hots, 25 urteko tarteak eginez. XIII. mendean agiri kopurua nahiko txikia da Eusko Ikaskuntzaren aleei erreparatuz, ikusi daiteke tarte honetan 16 dokumentu bakarrik argitaratu zirela. Mende honetan, lehen berrogeita hamar urtetan agiri bakarra dago, 1251-1275 bitartean bost eta gizaldiaren azken urteetan berriz, 1276-1300, 9 dokumentu.

XIV. mendean, kopurua zerbait handitzen da, baina gehienbat tarte honetako azken urteetan. Guztira, 68 dokumentu arkitzen dira, ia erdiak, 30, gizaldi honetako azken urteetan kokatzen dira, 1376-1400 bitartean. Mendearen beste tarteetan zehar goraldi progresibo bat nabaritzen da, 1301-1325 bitartean 9, 1326-1350 artean 14 eta azkenik, 1351-1375 tartean 15 agiri.

XV. mendean, aurreko garaian prozesu berari jarraituz, dokumentuen kopuruak gora egingo du. Edonola ere, gizaldi honetako lehen tartean, 1400-1425, aurreko tarteko antzeko kopurua argitaratu ziren, 32 zehazki. Hala ere, 1426tik aurrera kopura asko handituko da, monarkiaren modernizazioa eta burokraziaren garrantziak gora egitean. Honen adibide dira hurrengo aldietako agiri kopuruen gorakada, 1426-1450 artean 55, 1451-1475 bitartean 115 eta 1476-1500 tartean 89 dokumentu. Esan beharra dago, IV. tomoko azken hiru agiriez ez dutela data zehatzik, uste da 1471-1500 artekoak izango direla, baina ez da ziurra. Hori dela eta, aurrerago egingo den sailkapen kronologikotik at utziko dira.

---

<sup>18</sup> MARTÍNEZ, Gonzalo; GONZÁLEZ, Emiliano; MARTÍNEZ, Francisco J., *Colección De Documentos Medievales De Las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*, Donostia, Gipuzkoa Batzar Nagusiak, Gipuzkoako Diputazioa, 1991-1996. 94-96 orr.

Azkenik, XVI. mendean ere antzeko zerbait gertatuko da dokumentazioaren kopuruan. Kontuan hartu behar da, Arrasaten, Eusko Ikaskuntzak bere bilduman eginiko lanak, 1520 arteko dokumentuak argitaratzen dituela. Honela, azken tartean, 1501-1520, 125 dokumentu argitaratu dira, horietatik 7 (V. tomoko azken dokumentuk) ez daukate datarik, baina uste da tarte honetakoak izango zirela. Hala eta guztiz ere, garai honetan, zenbait desberdintasun daude dokumentazioari dagokionez. Arrasateri buruzko informazioa osatzen duen VI. tomoan, Lema eta Gómez-ek argitaratutakoa, udalaren kontu liburuen eta Gipuzkoako Batzar Orokorretako akordioen kopien transkribaketa eta argitalpena burutzen da. Kontu Liburuari dagokionez, argibidea urtez urte agertzen da 1501etik 1520era arte, oro har, bi hutsune geratzen dira: 1508 eta 1509. Kasu honetan, konbentzionalki, erabaki dugu urte bakoitzerako argibidea dokumentutzat jotzea. Honela, 18 dokumentu aurkitzen dira, 1501-1520 artekoak, dena dela urte batzuetan ez da dokumenturik aurkitzen, esterako 1508an edo 1509an. Gipuzkoako Batzar Orokorretako akordioen kopien agiriak, berriz, 12 dira eta hauek 1510-1520 bitartean idatzi ziren.

Gonzalo Martínez Díez-ek zuzendutako lanean, aurretik azaldu bezala, Gipuzkoako hiribilduen dokumentazioa argitaratzen da, 1200-1397 tartekoa, bi tomotan banatua. Kasu honetan, Arrasateri buruzko agirien kopurua txikiagoa da, baina Eusko Ikaskuntzaren laneko prozesu antzekoa nabari da. Lan honetan argitaratzen den lehen dokumentua 1260koa da, XIII. mendeko lehen erdian ez baita agiririk agertzen. 1251-1275 artean, 4 dokumentu plazaratu dira eta hurrengo tartean, 1276-1300, bost. XIV. mendean berriz, aurreko lanean bezala, agirien kopuruaren gorakada progresibo bat nabaritzen da, azken tartean, 1376-1400, dokumentu gehien agertuz, guztira 18. Aurreko tarteetan; 1301-1325, sei; 1326-1350, hamar eta; 1351-1376, hamabost agiri aurkitzen dira.

Honako taula honetan Arrasateri buruzko agirien sailkapen kronologikoa ikusi daiteke. Horretarako, aurretik azaldu bezala, XIII, XIV, XV eta XVI. mendeak 25 urteko tarteetan banatu dira, dokumentu kopuruen eboluzioa argiago ikusteko helburuarekin.

***Taula 1.*** Hemen agiri guztiak dataren arabera sailkatuta daude, datarik gabeko 10 agiri ez dira kontuan hartu.

	XIII. Mendea	XIV. Mendea	XV. Mendea	XVI. Mendea
01-25	1	10	32	118
26-50		17	55	
51-75	6	18	115	
76-00	10	34	89	
GUZTIRA	17	79	291	118

Taula hau, aurretik azaldukoaren erakusle garbia da, Arrasateri buruzko dokumentuen banaketa kronologikoa eginez. Honetarako, aurretik aipatutako datarik gabeko IV. aleko 3 eta V. aleko 7 dokumentu alde batera utzi dira, idatzi ziren urtea ez delako ziurra, 10 agiriak 1471-1520 bitartekoak direla suposatu arren. Horrez gain, Eusko Ikaskuntzaren bildumako 6. tomoa ere alde batera utzi da, agiri mota bereziak direla kontsideratu daitezke eta. Honela, Eusko Ikaskuntzak bere bilduman Arrasateri buruz argitaratutako bost aletan, guztira 492 agiri sailkatu dira. Hauekin batera, Gonzalo Martínez Díez-ek zuzendutako lanean aurkitzen diren 13 agiri ere sailkatu dira taulan. Lan honetan, Arrasateri buruzko dokumentu gehiago aurkitzen diren arren (guztira 58), gehienak Eusko Ikaskuntzaren bilduman ere aurkitzen dira, hau da, errepikatuak daude. Agirien kopurua artifizialki ez handitzeko errepikapenak baztertzin dira taulako kalkuluan. Era berean, esan bezala, Gonzalo Martínez Díez-ek zuzendutako liburuko 13 agiri soilik zenbatu dira. Dokumentu multzo hau 1200-1397 bitartekoa izango da, lan honetan kronologia honetako dokumentuak transkribatu ziren eta. Hori dela eta XV. eta XVI. mendeetako dokumentu guztiak Eusko Ikaskuntzak argitaratutakoak izango dira.

## 3.2.- Agiri motak egilearen arabera

### 3.2.1. Aspektu orokorrak

Aurreko puntuan sailkapen kronologikoa egin denez, jarraian datorren puntuan dokumentuak egilearen arabera sailkatuko ditut. Horretarako, multzo desberdinak egingo ditut. Horietako lehenengoa udal dokumentuena izango da, kasu honetan, Arrasateko udalak idatzi eta hiribilduko gorabeheren inguruan hitz egiten dutenak. Bigarren multzoa, errege agiriena da, hauetan, Gaztelako erregeek udalari, kasu gehienetan, idatzitakoak

sartuko ditut. Hirugarren mota, Gipuzkoako Probintziak eta Ermandadeak emandako agiriak izango dira, Gipuzkoako Ermandadearen sorrerarekin hasiko dira mota honetako agiriak. Egile publikoekin amaitzeko, azken multzoa Arrasatek kanpo dauden aginteez (udal, konderri, Ermandade etab.) idatzitako agiriak ere kontuan hartuko dira. Esaterako, Oñatiko konderriak, Leintz bailarak edo Aramaioko jaunak Arrasateko udalarekin izan zituzten arazoren bat konpontzeko agiriak izango dira. Multzo hauetaz gain, Elizak eginiko agiriak ere aipatu behar dira, kasu honetan, Calahorrako apezpikutzak emandako dokumentuak ere aurkitzen baitira. Bestalde, egile pribatuek idatzitako dokumentuen multzoak ere aipamen berezia merezi dute, hauen kasuan, notario pribatu batek idatzitakoak izaten dira eta pertsona pribatuen arteko eta pertsona pribatuak eta udalaren artekoak salerosketak baliotu edo arazoak konpontzeko helburua izaten dute.

***Taula 2.*** Hemen aztertu dugun 515 agiriak egilearen eta mendearen arabera sailkatuta daude

	XIII.mendea	XIV.mendea	XV.mendea	XVI.mendea	Datarik ez	Guztira
Errege agiriak	17	64	99	43	2	225
Udal agiriak		4	92	41	1	138
Elizaren agiriak		4	16	3	1	24
Probintzia agiriak		2	17	8	2	29
Kanpoko agintarien agiriak		1	37	9	3	50
Agiri Pribatuak			29	19	1	49

Goiko taula ikusita, argi eta garbi geratzen da, Arrasateko kasuan, errege agiriak dokumentazioaren zati handi bat hartzen dutela. Mota honetakoekin batera, udal dokumentuek ere garrantzi handia dute, baina taulan ikusten den bezala XV. mendetik



aurrera ugarituko dira. Bestalde, beste mota guztiek, presentzia gutxiago dute Arrasateko hiribilduko dokumentazioan.

Taulan ikusi daitekeen modura, XIII. mendean errege agiriak aurkitzen dira; XIV. mendean berriz, jada Probintzia, Eliza edo kanpoko agintariak aginduz idatzitako dokumentu bakanak aurkitzen dira. Mota hauek, XV. eta XVI. mendeetan zehar ugaritu egingo dira, dokumentuen kopuruak gora egiten duelako gehien bat. Igoera horretan, aipagarria da, kanpoko agintariak emandako dokumentuen kopuruak XV. gizaldian gehitu egiten direla, hau bandoen gerran izandako arazoen ondorioa izan daiteke. Azkenik, aipagarria da, XV. mendetik aurrera dokumentu pribatuak agertzen direla, kantitate nahiko handian. Hurrengo mendean gainera, asko haziko dira dokumentu mota honen zenbatekoa. XVI. mendeko lehen bi hamarkadak azertu dira oraingoz eta guztira, 18 dokumentu pribatu aurkitu dira, errege eta udal agirietatik nahiko hurbil egonez.

Bestalde, argi gelditzen da Eliza eta Probintziak emandako agiriak nahiko urriak direla eta agiri pribatu eta kanpo agintariak emandako dokumentuen kopurua, gutxi gora behera, bikoitza dela. 1520tik aurrerako dokumentuak izan ez arren, suposatzen da, Probintziak eginiko dokumentuen kopuruak gehiago izango zirela, garai horretatik aurrera instituzio honek garrantzi handiagoa izango baitu.

Sailkapen kronologikoan egin den modura, azpiatal honetan ere Eusko Ikaskuntzak argitaratutako VI. aleko dokumentuak, kontu liburuak eta Gipuzkoako Batzarretako aktak ere ez dira taulan sartu. Kasu honetan, hiribilduaren kontu liburuak udal agirietan sailkatuko lirake, hiribilduko maiordomoek, udalak urtean zehar eginiko eragiketak, gastuak, ordainketak etab. azaltzen baitute. Gipuzkoako Batzarretako aktak, berriz, Probintziaren agiriak izango ziren.

Dokumentuak egilearen arabera sailkatzean ere, dudak oso ohikoak izan dira, askotan ez baita garbi geratzen agiria nork idatzi duen. Errege agiriak aurkitzea nahiko sinplea da, hala ere, askotan, erregeak izena jarri ordez erregearen zerbitzuko ofizialak aipatzen dira, notario eta eskribauak. Kasu honetan, errege agiri modura kontsideratzen dira, hauek erregean aginduz eginak baitira. Bestalde, batzuetan bi hiribilduren arteko gatazka bati buruzko testu baten hasierako pentsaera udal dokumentuak direla izan da; nolana ere, ondo begiratu gero, agiri mota hauek erregearen ofizial batek idatziak egoten dira, hori dela eta, errege agiri modura kontsideratu ditut, erregearen ofizialak epaile edo bitartekari lanak egiten baitu. Azkenik, izandako dudaren artean, aipagarria da, dokumentu batzuen

egileak mistoak direla, esaterako Arrasateko udalaren eta San Juan Bautista elizaren artean dokumentu bat idazten dutenean. Honen adibidea da, Eusko Ikaskuntzak *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo V. Libro 2. Copia de Privilegios Antiguos (1217-1520)* liburuan argitaratu zuen 83. dokumentua. Kasu honetan, udal agiri modura sailkatu da, hiribilduaren inguruko kontuei buruz hitz egiten baitu.

### 3.2.2. Probintzia Agiriak

Aurreko taulan, sailkatu ditugun 515 dokumentuetatik Probintziak emandakoak kopuru nahiko baxua den arren (29 guztira), hauek garrantzi handia dute eta horregatik azpiatal bat egitea erabaki da. Hauei ere, Eusko Ikaskuntzak Arrasateko dokumentazioaren inguruan duen VI. aleko Gipuzkoako Batzarretako Aktak ere gehitu behar zaie, kasu honetan, 12 agiri. Hauen bitartez, Gipuzkoako historia aztertuz gain, Arrasateri buruzkoa ere ikertu daiteke, bai hiribilduko historia, baita Probintzian izan zuen garrantzia ere.

Agiri mota hauen barruan, aipagarriak dira, Batzarretako erregistroak edo aktak. Lehen esan bezala, Arrasateko dokumentazioa biltzen duten VI. tomoan aurkitzen da horrelako agirien adar berezi bat: gastuen banaketak (*repartimientos* deiturikoak). Gipuzkoakoan, Probintziako Batzar Nagusiak (erregularrak) urtean birritan egiten ziren, sesioan bi akta mota idatziz. Horietako batzuk, orokorrak izaten ziren, besteak berriz, gastuen kontrola eramateko eginikoak, gastu huek Probintziako populaketa gune ezberdinetan banatuz; Eusko Ikaskuntzaren bildumako VI. alean mota honetakoak aurkitzen dira. Azken mota honetako agiriak XVI. mendetik aurrera zabalduko dira; Gipuzkoako kasuan, 1510rtik aurrera, serie jarriak agertuz. Dokumentu hauek, gehienetan egitura oso antzekoa izaten zuten, agiri gehien antzera, sarrera antzeko bat dute, aktaren data, non idatzi zen, autoritate eta batzarkideen aurkezpena etab. Jarraian erregistroaren muina agertzen da, hau da, gastu bakoitzaren aipamen eta deskribapena, bere kopurua eta azkenez, gastuon batuketa eta Gipuzkoako populaketa guneen arteko banaketa. Aipamenok, modu kronologikoan antolatzen ziren, parrafo desberdinetan banatuz<sup>19</sup>.

### 3.2.3. Udal Agiriak

Udal agiriek, lehenago aipatu bezala, Arrasateko dokumentazioan garrantzi handia dute, errege agirien ondoren, gehien aurkitzen diren dokumentu motak direlako, guztira 138 aurkitu daitezke. Beraz, Probintzia agiriekin egin bezala, mota hau azpiatal batean azaltzea erabaki da. Mota honetan ere, Probintzia dokumentuen antzera, azpiatal edo

---

<sup>19</sup> LEMA, José Ángel [et al.], *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas...* 149-150 orr.

klase desberdinetan banatu daitezke. Hauetan, interesgarriak dira udal gobernuak hiribilduaren inguruan eginiko inbentarioak, klase honen adibide garbia da Eusko Ikaskuntzak hiribilduaren dokumentazioaren inguruan plazaratu zuen II. aleko 115. agiria. Mota honetako dokumentuen bidez, Arrasateri buruz kontserbatu ez diren argibideak aurkitu daitezke, hiribilduko historia ezagutzeko garrantzi handia izan dituztenak. Inbentario hauetan, kontzejuko kideek, hiribilduko dokumentu edo gutunen laburpen antzeko bat egiten dute eta dokumentu honetan batuz, gero hau toki seguruan gordetzen zen. Mota honetako 6 agiri zenbatu dira landutako 515 dokumentuetatik, eta hauetatik zaharrena 1438koa da; besteak berriz, XV. mende bukaerakoak. Aipagarria da, inbentarioetatik bat datarik gabeko hamar dokumentuetako bat dela, nolana ere, garai hartako izango dela uste da. 6 agiri horietatik 2 dokumentu ez dira udalak eginikoak, bat Gipuzkoako Probintziak eta bestea San Juan Bautista parrokiak egingo zituzten. Inbentario hauetan, esan bezala, dokumentuen laburpenak sailkatzen dira hurrenez hurren; honen adibide modura Eusko Ikaskuntzak argitaratu zuen II. tomoko 115. agiriko zati bat ikusi daiteke:

*“Primeramente, una escriptura signada de Juan Garçia d'Olalde en que esta encorporrada una procuraçion del conçejo de la villa de Mondragon que fue otorgada para la ygualança de sobre los debates de entre el dicho conçejo e de la casa de Guebara; (...) esta signado por el dicho Juan Garçia1.*

*Otrosi una carta de perdon del Rey que perdono e quito a los acusados, vesinos de la diche villa, (...) La qual dicha carta esta firrmada del Rey e sellada con su sello de la poridad en las espaldas con Çera vermeja e paso por Diego Romero”<sup>20</sup>.*

Inbentarioez gain, aipagarriak dira, epaile batek udalari emandako auto prozesualak. Mota honetako dokumentuen adibidea *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón I. (1260-1400)* liburuko 46. agiria da, luzea izan arren oso interesgarria da. Kasu honetan Arrasateko hiribilduaren eta Oñatiko kondearen (Pedro Velez de Guevara) arteko gatazka baten autoa da. Bi aldeek, beren bertsioa Kortera eramango dute eta bertan erregearen ofizial batek, kasu honetan epaileak, kondearen edo hiribilduaren aldeko sententzia bat emango du. Mota honetako dokumentuak, errege agiri modura ere sailkatu daitezke, aurretik esan bezala erregearen ofizial batek eginiko dokumentua baita.

---

<sup>20</sup> CRESPO, Miguel Ángel; CRUZ, José Ramón; GOMÉZ, José Manuel eta LEMA P, José Ángel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo II. (1400-1450)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996, 124-125 orr.

Edonola ere, udal agirien barruan sartzea erabaki da, auto prozesual honen alde bat Arrasateko hiribildua delako.

Udal agirien barruan ere, beste multzo bat, udal ordenantzak, aipatzea beharrezkoa da. Ordenantza hauek udalak emandako arau bildumak dira, bertako biztanleen bizikidetzaz errazteko. Kasu honetan, Arrasateko kontzejuak emandakoak, baina ez beti. Beste batzuetan hiribilduko eliza batek edo Probintziak ere eman dezake; baita bi instituziok batera, eliza eta hiribilduak, esaterako. Aztertu ditugun 515 agiritatik, 8 dira ordenantzak eta hauetan, hiribilduak, probintziak eta San Jaun Bautista eta hiribilduak batera emandakoak aurkitzen dira. Ordenantza hauez gain, erregeak edo eliz instituzioek, kasu honetan Calahorrako apezpikutzak, agindu hauen konformazioak ere aurkitzen dira. Mota honetako agiriak, XV. mende erdialdetik aurrera hasiko dira agertzen eta gehien bat 1490 hamarkadatik aurrera ugarituko dira. Horrez gain, gai ezberdinen ingurukoak izaten dira ordenantza hauek, esaterako, hiribilduaren erreketaren ondorioz berreraikuntza nola egin behar den agintzen dutenak.

Azkenik, udal agirien barruan ere, beste dokumentu garrantzitsu batzuk aipagarriak dira, kontu liburuak. Agiri mota hauek, 1500 urtetik aurrera ugaritu egingo dira, Errege Katolikoek, hauek egin eta gordetzeko agindu baitzuten; horretarako, diru kontuez arduratzen den *maiordomo* bat izendatuko zuten, *mayordomo bolsero* deitua<sup>21</sup>. Arrasateko kasuan, 1500 urtetik aurrera, urtero egiten ziren mota honetako dokumentuak. Eusko Ikaskuntzak hiribilduari buruz egin duen laneko VI. tomoan aurkitu daitezke 1520 artekoak; dena dela, aurretik aipatu bezala, urte batzuetakoak ez dira kontserbatu, 1508 eta 1509 zehazki<sup>22</sup>.

Kontu liburu hauek nolakoak ziren azaltzeko, urte batekoa aukeratu eta aztertzea oso interesgarria da, kasu honetan 1504koa azalduko da. Hasteko, agiri gehien gisa, agintarien aurkezpena eta dokumentuan agertzen diren eragiketen data aurkitzen dira, kasu honetan, kontzejuko maiordomoak Pero Garçia de Gaviria-k, 1503ko San Migel egunetik (irailak 29) 1504ko San Miguel egun arte. Behin aurkezpena eginda, gastu eta sarreraren xehetasunak argitzen hasten da; horretarako gastu eta sarrerak zenbatzen dira ordena kronologikoan. Lehenengo eragiketaren eguna ageri da, ondoren gastu edo

---

<sup>21</sup> ACHÓN, José Ángel, *A Voz De Concejo: Linaje Y Corporación Urbana En La Constitución De La Provincia De Gipuzkoa: Los Báñez Y Mondragón, Siglos XIII-XVI*, Donostia, Gipuzkoako Diputazioa, 1995, 309 orr.

<sup>22</sup> LEMA, José Ángel; GOMÉZ, José Manuel, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo VI... I. or.*

sarreraren deskribapena eta azkenik, eskuineko aldean diru kopurua, marabeditan. Agiriarekin amaitzeko dokumentuaren egileen sinadurak aurkitzen dira<sup>23</sup>. Ondorengo da udalaren gastuen adibide garbi bat:

*“En veynte e nueve de otubrrre de quinientos e trres años pague a los nueve ballesteros que el conçejo ynbio a la villa de Fontarribya, syete mill e e (sic) ochoçientos e trres maravedis:..... VII mill DCCCº III maravedis.”<sup>24</sup> .*

### 3.3.- Islatzen diren gai historikoak:

Lana amaitze aldera, ezinbestekoa da dokumentu guzti hauetan islatzen diren gai historikoak aipatzea. Eusko Ikaskuntzak, Gonzalo Martínez Díez-ek eta beste hainbat historiagile eta erakundek burututako transkribaketa eta edizio lanek, zentzu handiago bat izan dezaten. Lehen mailako iturri hauek ezinbestekoak baitira historia ezagutzen laguntzeko, are gehiago hiribildu batekoa, Arrasateren kasua esaterako. Gai historiko hauek ugariak dira eta dataren arabera ere desberdintasunak nabari dira.

Garbi ikusten da Arrasateko hiribilduari buruz agertzen diren lehen dokumentuak errege agiriak direla; hauen bitartez, errege eta hiribilduaren arteko harremanak aztertu daitezke. Beraz, lehenengo eta behin erregea eta hiribilduaren arteko erlazioak aztertuko dira. Eusko Ikaskuntzak Arrasateri buruz plazaratu zuen I. aleko 1. agirian, argi ikusten da hau, erregeak, kasu honetan Gaztelako Alfontso X.ak, 1260an Gasteizko forua ematen dio eta. Honela, Arrasate Leintz bailaran aurkitzen zen komunitate bat izatetik, komunitate pribilegiatu bat izatera pasako da, erregearekin lotura zuzena izanik<sup>25</sup>. Dokumentu hau, garaiko testuinguruan kokatuz gero, Gipuzkoan, hiribilduen hedapen bat ikusi dezakegu, behin Gaztelak lur hauek okupatu ondoren. Helburu nagusia Gaztelako kostea eta mesetako komunikabideak hobetzea zen, horregatik lehendabizi, 1203-1237 artean kostako herriei foruak emango dizkie, esaterako, Hondarribia, Mutriku edo Getaria; eta ondoren XIII. mende erdialdean barrualdeko beste zenbait herriri emango die foruak, besteak beste: Bergara, Tolosa edo Arrasate<sup>26</sup>.

Errege foru hauez gain ere, erregeak hiribilduari emandako pribilegioak ere ohikoak dira; abantaila hauen artean, zergen salbuespenak daude, honen adibide garbia Arrasateri

---

<sup>23</sup> LEMA, José Ángel; GOMÉZ, José Manuel, Op. cit., 33-43 orr.

<sup>24</sup> LEMA, José Ángel; GOMÉZ, José Manuel, Op. cit., 34. or.

<sup>25</sup> ACHÓN, José Ángel, *A voz de Concejo...* 30. or.

<sup>26</sup> LEMA, José Ángel, "Evolución política de los territorios históricos: Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Edad Media", in BARRUSO BARES, Pedro, LEMA PUEYO, José Ángel (arg.), *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Donostia, Hiria, 2004, 129-130 orr.

buruzko I. tomoko 3. dokumentua da, non, Alfontso X.ak 1262an burdinaren gaineko zerga bat ez ordaintzeko eskubidea ematen dio hiribilduari. Erregea eta hiribilduaren arteko harremanetan dokumentazioak eman dezaken azalpenekin amaitzeko, interesgarria da Eusko Ikaskuntzak hiribilduari buruz argitaratutako I. aleko 38. Agiria aipatzea; bertan, 1379an Gaztelako erregeak Juan I.ak, Arrasateri, bere errege-koroaren barruan dagoela konfirmatzen dio. Hau, aurreko urteetan Nafarroa eta Gaztelako erreinuek Gipuzkoako kontrolagatik izan zuten gatazka baten ondorioz idatzi zen. Gerra honetan, Nafarroak Gipuzkoako zenbait lurralde eskuratu baitzituen, hala ere, 1375ean bakea sinatu zen bi erreinuen artean<sup>27</sup>. Gipuzkoako lurrak Gaztelarenak zirela berresteko mota honetako dokumentuak plazaratu zituen Gaztelako errege berriak. Bestalde, aipagarria da honelako dokumentu guztiak, bai foru, pribilegio edo salbuespenen konfirmazioak ere ohikoak direla, gehienetan errege berri bat izendatzen denean.

Harreman hauez gain, beste zenbait gai ere aztertu daitezke Arrasateri buruzko dokumentazioarekin, adibidez udalaren funtzionamendua. Funtzionamenduaren barruan, udalaren ardurak, egitura, ekonomia etab. sartu beharko lirateke, besteak beste. Arduren artean, jadanik XIV. mende erdialderako instituzionalizazio prozesu bat nabaritzen da kontzejuan, udal karguak areagotuz, *alcalle e merino*, *prestamero* edo *preboste*, baita eskribaua ere<sup>28</sup>. Kargu hauekin erlazio zuzena izanik, dokumentuetan zehar ere, kontzejuko postu hauek elite baten esku gelditzen direla ikusi daiteke; Achón-ek azaltzen duen bezala, kontzeju itxi baten antzekoa bihurtzen da, hiribilduko bizilagunen eskuhartzea gutxituz, hierarkizazio prozesu bat emanez<sup>29</sup>. Ardura desberdinak agertzeaz gain, hauek nola hautatzen ziren ere ikusi daiteke zenbait dokumentutan.

Udalaren ekonomiaren nondik norakoak aztertzeko ere, ezinbestekoak dira dokumentu hauek. Mota honetako agiriak anitzak dira, hauen artean ohikoak dira udalak pertsona pribatu bateri maileguak eskatzea, bere gastuei aurre egiteko. Honelako kasutan, udalak behin mailegua itzultzean, mailegu emaileak itzulera hau konfirmatzen zuen dokumentu baten bidez. Bai maileguen eskatzea bai konfirmazioak, Eusko Ikaskuntzak hiribilduari buruz argitaratutako tomoetan ohikoak dira, esaterako, II. tomoko 57. dokumentua edo 108.a<sup>30</sup>. Maileguez gain, udalak alkabalaren kobratzearen inguruko informazioa ere

---

<sup>27</sup> LEMA, José Ángel, "Evolución política de los territorios históricos...", 132-133 orr.

<sup>28</sup> ACHÓN, José Ángel, *A voz de Concejo...* 44-45 orr.

<sup>29</sup> ACHÓN, José Ángel, *Op. cit.*, 47. or.

<sup>30</sup> CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; GOMÉZ LAGO, José Manuel eta LEMA PUEYO, José Ángel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo II...* 13-14 eta 111-112 orr.

ematen dute; interesgarria da ikustea bizilagunek beren etxeetan ardoa eta sagardoa saltzeko aukera zutela, zergak ordaindu gabe. Bestalde, ekonomiaren barruan, burdingintzak Arrasaten historian zehar izan zuen garrantzia ere ikusi daiteke agiri hauetan zehar. Hainbat dokumentuk egiten diote erreferentzia hiribilduko burdingintzari, Eusko Ikaskuntzak plazaratutako 2. agirian, 1262an, jadanik erregeak Arrasateri bertako burdinoletan beharrezkoa zen ikatz eta egurra hartzeko eskubidea ematen diola azaltzen da.

Dokumentazioak hiribilduaren inguruan eskain dezakeen informazioaz jarraitzeko, aipagarria da Arrasateren hirigintzari buruz ematen dituen argibideak. XIV. mende erdialdean hasita, Gipuzkoan bandoen arteko gatazka eta biolentziak ugaritu egin ziren, honen aurrean auzo eta herrixkak defentsa gabe geldituz. Testuinguru honetan, herrixka hauek inguruko hiribilduko jurisdikzioetan sartzen hasiko dira, hiribildu eta hauen foruen babesaren lortzeko asmoz<sup>31</sup>. Arrasateko kasuan, 1353an, Garagartza, Udala, Erenusketa, Gesalibar, Uribarri, Isasiñaga eta Oleaga herrixkak, hiribilduko parte izatera pasako dira, auzotar estatusa, jurisdikzioa eta babesaren truke. Hau Eusko Ikaskuntzaren I. aleko 25. agirian ikusi daiteke eta 31. agirian berriz, Gaztelako erregeak, Enrike II.ak, elkartzeko hau konfirmatzen du, 1367 urtean.

Hirigintzari buruz beste zenbat gai ere ikusgai daude dokumentuetan zehar, harresien ingurukoa adibidez. Aztertutako dokumentazioan, harresia eraikitzen noiz hasi zen agertu ez arren, 1305ean Fernando IV.ak, 5 urtetarako zergen salbuespena ematen dio Arrasateri, bertako murailak eraiki bitartean, hau Arrasateri buruzko 5. aleko 9. agirian ikusi daiteke; 1. tomoko 16. dokumentuan ere antzeko salbuespen bat ageri da. Urte batzuk beranduago ere, 1490ean zehazki, zergen salbuespenak eta abantailak jasoko ditu kontzejuak 1448an hiribilduan eman zen suteak eragindako kalteak konpontzeko. Salbuespen hauez gain, errege zein kontzejuak, sutearen ondoren, hiribilduaren berreraikuntza nola egin behar zen ere azaltzen da dokumentazioan.

Amaitze aldera, gai historikoekin jarraituz, ezinbestekoa da dokumentazioak Arrasateko kontzejua eta Oñatiko jaurgotza boterearen arteko harremanak eta tirabirak azaltzea. Jakina den bezala, Arrasate eta Oñatiren arteko erlazioak ez ziren onak izan Berant Erdi Aroan zehar, oro har. Dokumentazioan ikusi daiteke 1304ean jadanik<sup>32</sup> Arrasateko hiribildua eta

---

<sup>31</sup> LEMA, José Ángel, "Evolución política de los territorios históricos...", 130. or.

<sup>32</sup> CRESPO, Miguel Ángel; CRUZ, José Ramón; GOMÉZ, José Manuel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón...* 17-19 orr.

Oñatiko jaunaren arteko gatazkak zeudela, Leintz bailararen jurisdikzioa eskuratzeko. Bi aldeek arazo hauen aurrean erregearen babes bilatuko dute, erregeak mugak finkatuz, hala ere, arazoak jarraitu egingo zuten. Erregeak, Oñatiko jaunari emango zion Leintz bailararen kontrola eta jurisdikzioa, Enrike II.ak noblearen fideltasuna lortzeko asmoz<sup>33</sup>. Honen aurrean, Arrasatek bailaran zituen eskubideak defendatzeko erregearen aurrera joango zen 1390ean, hau I. tomoko 46. dokumentuan ikusi daiteke, aurretik aipatu bezala, epaile batek emandako auto prozesual bat izanik. Hala ere, erregearen epaileak Oñatiko jaunaren alde egingo zuen.

Auto prozesual honek, Oñatiko jaunari bailarako jurisdikzioa eman arren, Arrasateko hiribilduak bere eskubideen alde borrokatuko zuen. Testuinguru honetan, Oñatiko jaurreriarekin zuen harremanekin batera, garai honetan emango diren bandoen gerrak ere azaltzen dira dokumentazioan, eta bi gaiak guztiz lotuta daude. Arrasateko familia edo leinu nagusia Bañez-tarrak izango ziren, eta hauek 1422an Gebara familiarekin (Oñatiko jaunarekin), aliatuko ziren<sup>34</sup>. Beste alde batetik, hiribilduan beste leinu garrantzitsu bat ere egongo zen Guraya izenekoa, hauek Aramaioko jaunarekin aliaturik. Bandoen lehen zantzuak agerikoak diren arren, 1426an arrasatearrak, bandoetan banatu gabe, Oñatiko jaunak hiribilduan zuen Zalgibar dorrea erasotu zuten dorrea eraitsiz. Nolanahi ere, 1429an Arrasateko kontzejua eta Oñatiko jauna akordio batera iritsiko ziren, bakea sinatuz. Hau Eusko Ikaskuntzak hiribilduari buruz argitaratutako 2. aleko 88. agirian azaltzen da. Dena dela, bando eta kontzeju eta Oñati eta Aramaioko jaunen arteko gatazkak ez ziren bukatuko eta hurrengo urteetan ere ohikoak izango ziren arazo hauek. Honen aurrean, erregeak korregidore bat bidaliko zuen, arazoak konpontzeko<sup>35</sup>. Honela, 1448en urtean, Bañez eta Guraya leinuen arteko borrokaren ondorioz hiribilduan sute bat emango da, hiribildua suntsituz, sute honi buruzko informazioa ere dokumentuetan agertzen da. Aipatu beharra dago gatazka hau ez zela tokiko leinuen arteko liskar bat bakarrik, Gipuzkoako leinu garrantzitsuenean gertakizunean parte hartu baitzuten. Hala eta guztiz ere, data honetatik aurrera, leinuen garrantziaren gutxitze bat emango da, Ermandade eta erregearen esku hartzea dela eta<sup>36</sup>.

---

<sup>33</sup> ACHÓN, José Ángel, *A voz de Concejo...* 77. or.

<sup>34</sup> ACHÓN, José Ángel, *Op. cit.*, 94. or.

<sup>35</sup> CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; GOMÉZ LAGO, José Manuel eta LEMA PUEYO, José Ángel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo II...* Kasu honetan liburu honetako 117 eta 118 agirietan azaltzen da goian azalduakoa.

<sup>36</sup> ACHÓN, José Ángel, *A voz de Concejo...* 102. or.



Azkenik. Gipuzkoako Ermandadearen eta Probintziaren historia azaltzeko ere balio du dokumentazio honek. Aurreko gaiarekin erlazionatuta, 1451n Gipuzkoako Ermandadeak, Zaldibargo dorrea eta bere lurak Arrasateko kontzejuari emango dizkio eta Oñatiko jaunari isun bat jarri. Dena dela, Oñatiko jaunak ez zuen onartu hau eta gatazkek jarraitu egin zuten. Azkenean, 1461ean, bi aldeek bakea sinatuko dute, urte luzeetako gatazkei amaiera emanez; gainera, Oñatiko jaunak Arrasaten zituen propietateak hiribilduari saltzen dizkio<sup>37</sup>. Dokumentazioan argi ikusten dira arazo hauek, esterako, 3. aleko 131. dokumentuan edo 180. eta 181. dokumentuetan. Gai hauez aparte, dokumentuaren bidez Gipuzkoako Probintziak eta Arrasateko hiribilduak zuten harremanak ere ezagutu daitezke. Baita, aurretik azaldu gisa, Probintzietako Batzarrei buruzko informazioa ere, Eusko Ikaskuntzak argitaratutako 6. tomoan plazaratuta daudenak.

#### 4.- ONDORIOAK

Lanari amaiera emateko, aurretik azaldu denaren ondorioak argitzen saiatzea beharrezkoa dela esan dezaket. Aurrez esan bezala Eusko Ikaskuntzak gehien bat, eta beste egile edo erakundeek orain arte eginiko lana oso baliagarria da. Gipuzkoaren kasuan, gainera aipagarria da esatea Euskal Herriaren testuinguruan lan gehien egin den lurraldea dela. Probintzia honen barruan, Arrasaten egin diren lanek garrantzi handia dute, hiribildu horretako Berant Erdi Aroko dokumentazioaren zati handi bat plazaratu baitu Eusko Ikaskuntzak.

Landutako dokumentu guztiak aztertuta, lehenago esan bezala, XV. mendetik aurrera agirien kopuruaren ugartze bat ikusten da. Monarkiaren modernizazioa eta burokraziaren garrantziak gora egitearen ondorioa izango da, gehien bat. Horrez gain, garbi ikusi da dokumentu gehienak erregeak edo udalak emandakoak direla eta beste erakundeak bigarren plano batean gelditzen direla. Edonola ere, aipagarriak dira, kanpoko agintariak emandako agiriak; XV. mendearen lehen erdian ugaltu egingo baitira, agian bandoen gerran testuinguruan Arraste eta Oñati eta Aramaioko jaunaren liskarren ondorioz. Azkenik, esan beharra dago dokumentazioaren inguruan egin den lana ezinbestekoa dela Arrasateko, inguruko eta Probintziako historia ezagutzeko. Dokumentuetan zehar, gai historiko ezberdinak azaltzen baitira: hiribilduen hedapena, bandoen gerrak, Arrasateren

---

<sup>37</sup> ACHÓN, José Ángel, *A voz de Concejo* ... 114-117 orr.

hirigintza prozesua, Gaztelako erregearekin izandako harremanak, hiribilduko ekonomia etab.

Lan garrantzitsua egin den arren, oraindik ere lan gehiago egin daiteke Arrasateko udal dokumentazioaren inguruan. Ikerketarekin jarraitzeko beharrezkoak dira, dokumentu juridikoez aparte, beste iturri mota batzuk lantzea, orain arte dokumentu juridikoak bakarrik landu baitira. Beraz, positiboa izango litzake Arrasateko Udal Artxiboko beste dokumentazio motak ere aztertzea, baita 1520tik aurrerako agiriak ere; hauetan, garaiko historiari buruzko argibideez gain, aurreko mendeetako historia ezagutzea posible izango litzateke. Bestalde, Arrasatetik kanpo aurkitzen diren artxiboak arakatzea ere oso garrantzitsua da, hiribilduko dokumentazioa eta historiaren ikerketan aurrerapenak egiteko. Hauen artean, Gipuzkoako beste herri batzuetako artxiboak, Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, Valladolideko Errege Entzundegiko Artxiboa eta Simankaseko Artxiboa etab. aztertzea oso interesgarria izango zen.

Honez gain, agiri mota guztiak aztertzea beharrezkoa dela iruditzen zaidan modura, garaiko eta ondoren eginiko kronikak aipatzea ere ezinbestekoa da. Gainera, Arrasateren kasuan, Esteban de Garibay hiribilduko semea izanik, honen oroitzapenak aztertzen jarraitzea interesgarria izango zen. Kontuan hartu behar dugu Garibay XVI. mendeko kronista garrantzitsua izan zela, erregearen kronista izatera iritsiz mende honen amaieran. Garibay-enez gain ere beste kronika batzuk ikertzea ere garrantzitsua dela uste dut Arrasateren historian aurrera pausoak emateko.

Bukatzeko, esan beharra dago, lana Arrasateko dokumentazioari buruzkoa denez, iturri idatziei eman zaiola garrantzia, zehazki lehen mailakoei. Aurreko parrafoan esan bezala, bigarren mailakoek ere informazioa eman dezakete, hala nola, kronikek. Honez gain, iturri materialek ere inportantzia handia izan ditzakete, ez dokumentazioan ikertzeko, baina bai hiribilduko historia aztertzeko. Hori dela eta, arkeologiaren ekarpenak ere kontuan hartzea interesgarria izango zela iruditzen zait; horretan asko lagundu dezakete Munibe, Arkeoikuska, Boletín Arkeolan... moduko aldizkariak.

## 5. BIBLIOGRAFIA

### 5.1.- Azterlanak

ACHÓN INSAUSTI, José Ángel, *A Voz De Concejo: Linaje Y Corporación Urbana En La Constitución De La Provincia De Gipuzkoa: Los Báñez Y Mondragón, Siglos XIII-XVI*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995.

BANÚS y AGUIRRE, José Luis, *El archivo quemado: Inventarios antiguos del acervo documental de la M. N. y M. L. ciudad de San Sebastián antes de la destrucción de 1813*, Grupo Doctor Camino, 1986.

BANÚS y AGUIRRE, José Luis, *El fuero de San Sebastián*, Donostia, Ayuntamiento de San Sebastián, 1963.

LEMA PUEYO, José Ángel, “Evolución política de los territorios históricos: Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Edad Media” in BARRUSO BARES, Pedro, LEMA PUEYO, José Ángel (arg.), *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Donostia, Hiria, 2004, 111-154 orr.

LEMA PUEYO, José Ángel, “Fuentes documentales impresas para el estudio de las redes de poder en la Baja Edad Media: el caso vasco como ejemplo de aplicación”, in CARVAJAL DE LA VEGA, David; VÍTORES CASADO, Imanol; AÑÍBARRO RODRÍGUEZ, Javier (edt.), *Poder, Fisco y Mercado en las ciudades de la Península Ibérica (Siglos XIV-XVI)*, Valladolid, Castilla Ediciones, 2016, 23-37 orr.

GUERRA, J. Carlos, “Curiosidades históricas de la villa de Mondragón. Carta de procuración”, in *Euskal Erria*, XXIX zbk., 1883, 12-16

LEMA PUEYO, José Ángel eta MUNITA LOINAZ, José Antonio, “Nuevos documentos y nuevo tratamiento de las fuentes para el estudio de la Lucha de Bandos”, in DÍAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, José Ramón (ed.), *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal: Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, Bilbo, EHU, 1998, 47-97 orr.

LETONA ARRIETA, José, *Mondragón: Sus Calles*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1975.

LETONA ARRIETA, José eta LEIBAR GURIDI, Juan. *Mondragón*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 1970.

ROCHA, Carmela; VILLANUEVA, Eider eta LEMA PUEYO, José Ángel. “La respuesta de un concejo guipuzcoano ante la guerra: Mondragón, 1500-1540”, in *Sancho El Sabio: Revista De Cultura E Investigación Vasca*, 12 zbk., 2000, 11-36 orr.

### 5.2.- Lehen iturrien argitalpenak

ACHÓN INSAUSTI, José Ángel (zuz.), *Esteban de Garibay y Zamalloa: "los siete libros de la progenie y parentela de los hijos de Estevan de Garibay"*, Arrasate, Arrasateko Udala, 2000.

AGUD QUEROL, Manuel, “La carta puebla de Mondragón” in *B.R.S.V.A.P.*, XVII zbk., 1961, 153-163 orr.

ÁLVAREZ FERNANDEZ, Carmen [et al.], *El Libro de los Bollones*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995

BARRUSO BARÉS, Pedro; LEMA PUEYO, José Ángel eta LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel. “Archivo De La Parroquia De San Juan Bautista De Arrasate-Mondragón: Relación Documental y Guía Del Investigador”, in *Mundaiz*, 44 zbk., 1992, 33-42 orr.

CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón eta GOMÉZ LAGO, José Manuel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón I. (1260-1400)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza CFDMPV 41, 1992.

CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; GOMÉZ LAGO, José Manuel eta LEMA PUEYO, José Ángel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo II. (1400-1450)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, CFDMPV 67, 1996.

CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; GOMÉZ LAGO, José Manuel eta LEMA PUEYO, José Ángel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo III. (1451-1470)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, CFDMPV 68, 1996.

CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; GOMÉZ LAGO, José Manuel eta LEMA PUEYO, José Ángel, *Colección de documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo IV. (1471-1500)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, CFDMPV 69, 1996.

DALMASES, Cándido de (zuz), *Fontes documentales de S. Ignatio de Loyola: documenta de S. Ignatii familia et patria, iuventute, primis sociis*, Erroma, Institutum Historicum Societatis Iesu, 1977.

FORTÚN PÉREZ de CIRIZA, Luis Javier; MUNITA LOINAZ, José Antonio eta GARCÍA de CORTAZAR, José Ángel (zuz.), *Codiphis: Catálogo de colecciones diplomáticas hispano lusas de época medieval*, Fundación Marcelino Botín, 1999.

HERRERO LICEAGA, Victoriano José; ACHÓN INSAUSTI, José Ángel eta MORA AFÁN, Juan Carlos, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo V. Libro 2. Copia de Privilegios Antiguos (1217-1520)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, CFDMPV 86, 1998.

LEMA PUEYO, José Ángel eta GÓMEZ LAGO, José Manuel, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo VI. Libro de cuentas del concejo. 1501-1520. Copias de Acuerdos de las Juntas Generales de Gipuzkoa. 1510-1520*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, CFDMPS 87, 1998.

LEMA PUEYO, José Ángel [et al.], *Los Señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Iturriak 2, 2000.

LEMA PUEYO, José Ángel [et al.], *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Iturriak 3, 2002.

MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo; GONZÁLEZ DÍEZ, Emiliano eta MARTÍNEZ LLORENTE, Félix J., *Colección De Documentos Medievales De Las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*, Donostia, Gipuzkoa Batzar Nagusiak, Gipuzkoako Diputazioa, 1991-1996.

MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo; GONZÁLEZ DÍEZ, Emiliano eta MARTÍNEZ LLORENTE, Félix J., *Colección De Documentos Medievales De Las Villas Guipuzcoanas (1370-1397)*, Donostia, Gipuzkoa Batzar Nagusiak, Gipuzkoako Diputazioa, 1996.